



AGENDA 21 PROIEKTUA. 2014-15 ikasturtea

Zer da Agenda 21?

Ingurumena zainduz bizimodu duin bat sustatzeko helburua duen egitasmoa da. Soilik ingurumena zaintzen badugu ziurtatu ahal izango dugu etorkizunean kalitatezko bizimodua eta **garapen iraunkorra**.

Mundu mailan sortu den proiektua da, baina tokian tokiko lana egiteko.

Nola hartzen dugu parte?

Gure eremua Lauaizeta Ikastola da, Donostiako udalerrian kokatua. Horregatik Donostiako beste hainbat eskolekin eta udaletxearekin batera hartzen dugu parte.

Zer egin dezakegu gure ikastetxean?

Eskolaren kudeaketa hobetu ingurumenean ahalik eta kalte gutxien sortzeko (zaborrekin zer egin?; ura, argia eta hainbat materialen erabilera eraginkorragoa nola egin?....) Ingurumena zaintzen eta garapen iraunkorra posible egiten **ikasi**.

Horretaz gain, ikasturte honetan Eusko Jaurlaritzak antolaturiko **Kontsumobide** tailerretan parte hartuko dugu.